

ERANSKINA:

Herri partaidetzarako egiturak, prozedurak eta baliabideak





**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Herri Partaidetza
Participación Ciudadana**

www.donostia.eus/partaidetza

Donostiako Udalaren Herri Partaidetza ereduari jasotako oinarri teorikoak praktikan eta egunerokotasunean txertatzeko, hainbat bide, elementu, estruktura eta dinamika garatzen ditu Herritarren Partaidetza zerbitzuak. Multzo horren antolaketari arkitektura deritzogu: metodologia bat eta 6 lan arlo ditu.

Jarraian arlo bakoitzean martxan ditugun egitura, prozedura eta baliabideak azalduko ditugu:



4. 2. 1. Gizarte mugimendua eta garapen komunitarioa

Jarduera errazteko eta komunitatea indartzeko ekintzak, mekanismoak eta baliabideak jartzen ditugu gizarte eta komunitate mugimenduaren eskura.

PH gunea

pH Gunea Partaidetza Zerbitzuaren lan lerro bat da, Donostiako parte-hartzearen nolakotasuna eta ezaugarri propio batzuk garatzea xede duena; horrela herritarren parte-hartzea erraztuko duten alternatibak hobetzen eta probatzen laguntzen duen testuinguru bat sortzen da.

Bere helburuetako bat elkarte-sarea, herritartasun aktiboa eta garapen komunitarioa indartzea da, herritarren ekimenak garatzen lagunduko duten laguntza eta baliabideak eskainiz.

Praktikan jarduera hauek egin dira:

- Partaidetzari buruzko barne hausnarketa sustatu da.
- Partaidetzan berrikuntza lantzen duten eragileekin harremanak egonkortu dira.
- Urte osoan zehar garatzen den elkarteentzako ikastaro programazioa antolatu da.
- Ekintza komunitarioari buruzko hausnarketa egin eta mintegi bat antolatu da elkarte batzuekin.
- Partaidetzateka web atalean irakurketa, formazio eta eragileei buruzko baliabideak jaso dira.

Auzoz Auzo dinamika

Dinamika honetan Herritarren Partaidetzak koordinatzen du Auzo Elkartearen eta Udaleko sail ezberdinen arteko lanketa, auzoak hobetzeko, haiek bideratzen dituzten proposamenen inguruan. Horrela, Auzo Elkarteek auzoetan hautemandako hobetu

beharreko gaiak jasotzen dituzte, eta horiek tratatzeko, bilerak egiten dira Auzo elkarte eta Udaleko ordezkari politiko eta teknikoaren artean, eta ondoren, erabakitako neurrien jarraipena egiten da. Dinamika hori berrikusten ari gara.

Auzo Mahaiak

Auzo mahaia auzoan eta auzorako lan egiten duten eragileen arteko batzar gunea da, auzoetan ongizatea hauspotzeko espazio bat zabalteko. Dinamika honek elkarte eta eragile ezberdinek auzoan ongizate fisiko, psikologiko eta soziala hobetzeko elkarrekin

hausnartu, proiektuak adostu, planifikatu eta aurrera eramateko helburua du, eta horretarako, Udaleko Herritarren Partaidetza Zerbitzuak koordinazio eta laguntzaile lanak egiten ditu.

Auzo Elkarten Bilgunea

Foro honetan Udaleko Partaidetza Zerbitzua eta arloko ordezkari zinegotzia elkartzen da hiriko Auzo elkarteetako ordezkariekin, Partaidetzak proposatzen duen unean uneko gai jakin batzuen inguruan hitz

egiteko, baita solasaldi irekia izateko ere, elkarteetako ordezkariak egin dezaketen hausnarketen inguruan. Bilera horien maiztasuna ez dago zehaztuta, baina bat gutxienez, legegintzaldi hasieran izaten da.

Herri entitateen erregistroa

Erregistro honetan hirian egoitza edo jarduera nagusia duten irabazi asmorik gabeko elkarteak, fundazio pribatuak eta kirol klubak onartzen dira, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatu eta sustatzen dutenak, eta konpromisoa

hartzten dutenak, interes orokorreko gaietan, Udalarekin batera partaidetza prozesuen garapenean lan egiteko. Erregistroa Udal Batzarraren Idazkaritza Orokorraren mende dago, eta kudeaketa Herritarren Partaidetzako Zerbitzuak eramatzen du.

Informazio panelak

Informazio panelak Udalak gizarte mugimenduaren eskura jartzen duen baliabide bat da, eta helburua da auzoetan antolatzen diren jarduera, prozesu eta proiektuen berri ematea, baita elkarren artean garatutako auzo komunitateari

buruzko ekimenak ere, betiere izaera gizarte interesekoak direnean. Panelak Herritarren Partaidetzaren esku daude, eta auzo elkarteak dira eurak erabili, txukundu eta kudeatzen dituztenak, Udalarekin onartutako hitzarmenean jasotako baldintzen arabera.

Udal lokalen lagapena

Udalak baditu jabetzan zenbait lokal irabazi asmorik gabeko erakundeei uzteko, toki bat izan dezaten ohiko kudeaketa burutu, eta proiektuen zein jardueren prestakuntza baldintza onetan antolatu, garatu eta osatzeko. Udaleko Ondare sailak lokalen eskaera guztiak jasotzen ditu, eta ondoren,

elkartearen jardun eremuaren arabera, dagokien Udal sailletara bideratzen ditu, sail bakoitzak dituen irizpideen arabera azter dezan. Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren jardun eremua partaidetza izanik, lokalak Auzo Elkarteei uzten dizkiegu, eurak baitira auzoen ikuspegi orokorra lantzen dutenak.

Dirulaguntzak

Herritarren Partaidetza Zerbitzuak Udalak irabazi asmorik gabeko elkarteei ekintzak sustatzeko ematen dien dirulaguntzetako bi ildo kudeatzen ditu: Partaidetza proiektuak, eta Auzo Elkarteen mantentze gastuak. Lehenengoak denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen

eta garatzen duten proiektuetarako dirulaguntzak dira; eta bigarrenak Auzo elkarteentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako dirulaguntzak dira, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzen laguntzeko.

4.2.2. Informazioa, komunikazioa eta trebakuntza



Herritarrei informazioa, elkarrekintzarako guneak eta prestakuntza eskaintzen dizkiegu.

Web-orria

Partaidetza zerbitzuaren webguneak atal ezberdinak ditu:

- Partaidetza Zerbitzuari buruzko azalpenak.
- Partaidetzarako bideei buruzko informazioa: Udal arau eta proiektuen egitean parte hartzea, herri kontsultak, sari eta merezimenduen proposamen eta hautaketa...
- Partaidetza jarduera zehatzei buruzko albisteak.
- Partaidetzarako lurralde eremuei buruzko informazioa.
- Hirian eta eremu hauetan herritarren partaidetzarekin garatutako proiektuak.

- Partaidetzazko Aurrekontuak egitasmorako esteka.
- Elkartegintzarako baliabide eskaintza : erregistroa, formazioa, lokalak eskuratzeko bideak...
- Irabazi asmorik gabeko elkarteentzako Udalak dituen zenbait diru laguntza lerroei buruzko informazioa.
- Aholku kontseiluei buruzko informazioa.
- Partaidetzateka atala.
- Auzo elkarteen webgune eta sare sozialetan ageri diren albisteetara estekak.

Herritarrei irekitako bilerak

Gobernu Batzarrak araubide edo ordenantza proposamen bat edo modifikazio bat onartu ondoren tramitazioaren baitan herritarrei irekitako bilerak ospatu behar dira. Herri Partaidetza Zerbitzuaren

webgunean argitaratzen dira bileren datak eta dokumentazioa eskuragarri jartzen da, eta Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikariek dinamizatzen dituzte bilera horiek.

Zuzeneko komunikazioak

Partaidetza zerbitzuak partaidetzarako erreferenteak ditu izendatuak auzo bakoitzerako Udal departamentu eta auzoen arteko zubi lana eta komunikazioa errazteko helburuarekin. Partaidetzaren erreferenteen papera ere bada; udal departamentuei

hausnarketa eta proposamen kolektiboen informazioa helarazi eta horien jarraipena egitea, auzoetan garatzen diren partaidetza prozesuetan metodologikoki laguntzea, eta Auzo Elkarteek eskatzen duten informazioa bideratzea.

Informazio bilerak

Udalak gai bati buruzko bilera irekiak antolatzen dutenak, soilik izaera informatiboa dutenak, gaien inguruko

ezagutza baita herritarrek parte hartu ahal izateko funtsezko oinarrietako bat.

Auzo Elkarten webgune eta sare sozialetako albiste bilduma

Partaidetzako webgunean, aplikazio baten bidez, Donostiako auzo elkarten

webgune eta sare sozialetan agertzen diren albisteetara iristeko estekak argitaratzen dira.

Ikastaroak

Donostiako Udaleko Herri Partaidetza zerbitzutik hainbat ikastaro antolatzen dira entitateen kudeaketan zein proiektu edo ekimenen garapenean elkarreentzako lagungarri izateko helburuz. Ikastaro horiek pH Gunea-ren baitan kokatzen dira, beste helburuen artean elkarte-sarea, herritartasun aktiboa eta garapen komunitarioa indartzea baita, herritarren ekimenak garatzen lagunduko duten laguntza eta baliabideak eskainiz. Ikastaroen programazioa urte osoko

begiradarekin antolatzen da: ikastaro bakoitzaren deskribapena, datak, ordu-tegiak, etab. Besteren artean hauek dira lantzen diren gaiak: dirulaguntzak, genero ikuspegia, komunikazioa, kultur aniztasuna, proiektuak nola landu, partaidetza, lege eta zerga betebeharrak, elkarten barne dinamikak eta kudeaketa...

Eskainitako ikastaroak burutu eta gero, saioen aurkezpen dokumentuak eskuragarri jartzen dira Partaidetzateka eremuko formakuntzako atalean.



4.2.3. Udal proiektuak definitzeko partaidetza prozesu eta uneak

Proiektu publikoak denon artean eraikitzea sustatzen dugu, alegia, udalaren eta herritarren artean. Iritzi desberdinak ezagutu eta eztabaidatzeko aukera ematen duten elkarrizketa-guneak sortzen ditugu; batzuetan, kontsentsua erdigunean jarriz eta, beste batzuetan, interes edo posizio ezberdinak ikusaraziz. Azken finean, prozesu eta une sortzaile eta inklusiboak definitzen eta garatzen ditugu, beste irtenbide batzuk lantzeko.

Partaidetzazko aurrekontuak

Donostiako Udalak partaidetzazko aurrekontuen programa eramaten du aurrera aurrekontu proiektua osatzeko. Proiektu hau Donostiako Udaleko herritarren partaidetza politika sostengatzen duen sistemaren baitan dago eta gobernuaren ordezkaritza lanarekin osagarri da, hiriko politika eta proiektu publikoak eraikitzerakoan.

Garatzen duen metodologia herritarren parte hartzeari unibertsaltasuna eta anonimotasuna eransten dio. Ariketa hori aurrekontuen bi urtetarako baliagarria da, hau da, udalak urte horietarako aurretik zehaztutako diru kopuru bat gordetzen du eta proposamen lehenetsien zerrenda erabiltzen du kopuru horretaraino iristen diren proiektuak aurrekontuan sartzeko.

Hainbat arlori buruzko partaidetza prozesuak: espazio publikoa, hirigintza eta hiri plangintza, kultura jarduera, adin sektore desberdinak; herri-galdeketak...

Udal proiektu zehatzen inguruan iritzi desberdinak ezagutu eta eztabaidatzeko aukera ematen duten elkarrizketa-guneak sortzen ditugu; batzuetan, kontsentsua erdigunean jarriz eta, beste batzuetan,

interes edo posizio ezberdinak ikusaraziz. Azken finean, prozesu eta une sortzaile eta inklusiboak definitzen eta garatzen ditugu, beste irtenbide batzuk lantzeko. Prozesu horiek hasiera eta bukaera data izaten dute.



4.2.4. Herritarren eta udalaren artean harreman egonkorrak izateko guneak ahalbidetzea

Eremu egonkorrak, arautuak edo arautu gabeak sustatzen, dinamizatzen eta koordinatzen ditugu, herritarrek eta Udalak sektore edo lurralde gaiei buruzko harremanak eta lan bateratua izan ditzaten.

A - GAIAK

Sektore kontseiluak

Parte hartzeko organo iraunkorrei dagokienez, batetik udalaren erakunde autonomo eta udal enpresetako kontseiluak daude; bestalde hirigintzarekin harremana duten eta arautegi zein funtzionamendu zehatzak dituzten Udal Planeamenduko kontseilua eta Ondareari buruzko kontseiluak ere baditu udalak.

Udal Kontseilu Sektorialak 7 dira: Memoria Historikoa, Ingurumena, Gizarte Ekintza, Euskara, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza, Beldintasuna eta Mugikortasuna.

Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak parte hartzeko organo iraunkor horietako

teknikariez osatutako taldea koordinatzen du: gune honek organo hauek partekatzen duten araudi komuna erreferentzia bezala hartuta kontseilu guztietarako dinamika koherente eta komuna sustatzeko helburua du.

Partaidetzeta Zerbitzuaren webgunean hainbat informazio dago Kontseiluak ezagutu eta hauen jarraipena egin ahal izateko: kide zerrenda, arautegiak, deialdiak eta aktak...

Partaidetzeta Zerbitzua arduratzen da legegintzaldi bakoitzaren hasieran kontseiluetako kideen berritzeaz eta kide berrien onarpen tramiteaz.

Hiriko Gizarte kontseilua

Donostiako Hiriko Gizarte Kontseilua aholkularitza-organorik gorena da, eta bere eginkizunak honako hauek dira: informazioa ematea, aztertzea, eztabaidatzea eta udal politikaren ildo nagusiei buruzko aholkuak ematea, gure hiriaren garapen estrategikoari, ekonomikoari, sozialari eta kulturalari eragiten dioten arloetan.

Gizarte Kontseiluak hirian dauden parte hartzeko egitura eta erakunde desberdinak

koordinatzeko gune bezala jardungo du, ikuspegi eta interes desberdineko pertsonen Donostiako herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko konpromisoa hartu eta lan egingo duten sarearen lotune nagusi gisa.

Partaidetzeta Zerbitzuaren webgunean hainbat informazio dago Kontseilua ezagutu eta honen jarraipena egin ahal izateko: kide zerrenda, arautegiak, deialdiak eta aktak...

Genero ikuspegia duen Mapa Kritikoaren Espazioa

Berdintasun atalaren koordinaziopean sailen-arteke lantalde bat osatu zen udalaren baitan 'Hiriko puntu kritikoen mapa' proiektuaren jarraipena egiteko: Partaidetza Zerbitzuak Berdintasun atalarekin batera kontu emate saioak antolatzen ditu.

Partaidetza Zerbitzuak bere aurrekontuan urtero "partida morea" izenburupean kopuru bat izaten du partaidetza eta berdintasuna uztartzeko.

B - AUZOAK ETA LURRALDE-ANTOLAKETAREN EGITURAK

Ekialdeko Barrutia

Ekialdeko barrutia kudeaketa organo deskontzentratua da udal gaien kudeaketan eta hobekuntzan herritarren partaidetza indartzeko eta garatzeko helburua duena. Herri Partaidetza zerbitzuari dagokio Barrutia eta udalaren arteko zubi lana egitea udal departamentuekin harremana sustatuz eta proiektuen inguruko informazioa

bideratuz. Barrutiak dituen batzorde eta egituren koordinazio lanak ere egiten ditu zerbitzuak: Euskarri juridiko administratiboan (deialdiak, aktak, prozedurak, organoaren erregelamenduaren ingurukoak...), Batzarraren eta lan taldeen dinamika sustapenean, Aurrekontuaren definizioan, exekuzioan eta jarraipenean, partaidetzaren sustapenean.

Zubietako Herri Batzarra

Zubietako ezaugarri bereziko enklabe bat da, Donostiako eta Usurbilgo udal mugarteena. Unitate sozial eta lurralde berezi bat da, eta beti izan ditu berezko ezaugarriak eta nortasuna, baita antolakuntza administrazio ezberdina ere. Batzar administratibo bat sortu zen, "Zubietako

Auzo Batzarra", administrazioaren organo osagarri bat. Herri Partaidetza zerbitzuaren funtzioak: Batzarraren behar juridiko administratiboetan laguntzea, Proiektuen jarraipena, Partaidetzaren sustapena, Usurbil eta Donostiako udalen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.

Igeldoko Tokiko Entitate Txikia

Kudeaketa organo decentralizatua da, herritarrengandik hurbilago egongo den funtzionamendu soziopolitiko eta administratiboaren nahia bideratzeko

formula gisa. Partaidetza zerbitzuak entitate txikiaren sorkuntza prozesuan erraztatzaile funtzioa du Udala eta Igeldotarren arteko zubi lana eginez.



4.2.5. Partaidetza instituzionalizatzea

Partaidetzari bermea, sistematika eta egonkortasuna ematen dizkioten prozedurak eta araudiak egitea sustatzen dugu.

Herritarrek araugintzan parte hartzea

Araubide edo ordenantza proposamenekin harremana duen partaidetzari dagokionez, legez zehaztuta dauden kasuetan derrigorrezko Kontsulta Publikoak antolatzen dira: kontsulta Publikoaz ari garenean udal webgunean epe zehatz batean irekitzen den formulario bat aktibatzeari buruz ari gara, non araudiak eragindako herritarrek eta erakundeek iritzia eman dezaketen adierazteko zer

iritzi duten ekimenarekin lortu nahi diren helburuei buruz eta araudiaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, bai hori onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, bai eta arauzko eta arauz besteko bestelako irtenbideei buruz ere.

Partaidetza Zerbitzuak bere webgunean Kontsulta Publikoei buruzko informazioa argitaratzen du eta formularioak aktibatzen ditu herritarrek ekarpenak jasotzeko.

Herri Galdeketen Araudia

Donostiako Udaltzako 2017ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran behin betiko onarpena eman zion Herri kontsularen erregelamenduari. Partaidetza zerbitzuak partaidetza tresna horri ekiteko prozedurak

aurrera eramateko koordinazio lana egiten du, inplikaturako eragileei aholkularitza eman eta partaidetza baldintzak bermez garatzeko beharrezko dinamikak bultzatu.

Lokalak lagatzeko sailean arteko mahaia

Irabazi asmorik gabeko elkarteetako udalaren lokalak uzteko prozesua optimizatze aldera, sail arteko batzorde bat du udalak. Hiriko elkarteekin harremana duten arloek, lehendakaritza departamentua eta udal ondarea sailak osatzen dute batzordea.

Herri Partaidetza zerbitzua da koordinazio lanak egiten dituen. Lantalde horrek eskariak proposatzen ditu, lehentasunak zehazten ditu eta emakida-proposamenak aurkezten dizkio Gobernu Batzordeari.

Herritarren Partaidetzarako Arau Organikoa

Zerbitzuaren ardura da 2016an onartu zen araudia aplikatzea eta segimendua egitea.

Dirulaguntzen Mahaiaren koordinazioa

Herri Partaidetza Zerbitzuan, Udaleko 9 sailek ematen duten Dirulaguntzen Mahaiaren koordinazio lana egiten du. Zereginen artean: Dirulaguntzetako Oinarrietan egin beharreko moldaketak kudeatzen dira, urteko kronograma egiten da, eta ebazpen plangintza diseinatzen da.

Era berean, urtean gutxienez behin, baina behar beste bilera egiten dira sailtako dirulaguntzetako arduradunekin. Bestalde, dirulaguntzetako urrats eta fase guztietan behar den laguntza eskaintzen zaie gainerako Udal atalei.



4.2.6. Udalean partaidetzaren kultura errotzea

Udalaren egitekoan partaidetzari bermea ematen dioten ohiturak sortu eta partaidetza kultura sustatzen dugu.

PH gunea

PH Gunea Partaidetza Zerbitzuaren lan lerro bat da, Donostiako parte-hartzearen nolakotasuna eta ezaugarri propio batzuk garatzea xede duena; horrela herritarren parte-hartzea erraztuko duten alternatibak hobetzen eta probatzen laguntzen duen testuinguru bat sortzen da.

Administratziotik egungo eta etorkizuneko gure jarduna birpentsatzea du helburu, baita herritarrekin nola erlazionatzen garen pentsatzea ere.

Horregatik guztiagatik, pH gunetik Udalean partaidetzaren kultura errotzeko jarduerak sustatzen dira.

Atalekin protokoloak definitzea

Udal atalen arteko lankidetzak, koordinazioa eta eraginkortasuna bilatzeko asmoarekin partaidetza ariketarekin harremana duten

ekimenetan egitekoak zeintzuk izango diren, eta eragile bakoitzaren papera/funtzioa zein izango den zehazten dugu.

Udal sailtako erreferenteen sarea

Udal Departamentuetan eta sailetan erreferenteak izendatuak ditu herri-

partaidetzaz aritzeko, planifikatzeko, tentsioa mantendu eta akuilu lana egiteko.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Herri Partaidetza
Participación Ciudadana

www.donostia.eus/partaidetza



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Herri Partaidetza
Participación Ciudadana

- 📍 +Informazio gehiago webgunean
www.donostia.eus/partaidetza
- ✉ 943 481356
- 📧 udala_partaidetza@donostia.eus
- 🏠 Easo 43, 2º
20006 Donostia